

den nobelagile militante baten erantzuna edo protesta. Literaturzale izatea ez da mundu honetan irits daitekeen bertuterik garaiena, baina bekatu ere ez da. Eta, ez gaitzen engania, literaturzale egunero literatur libururen bat eskuartean duena da, literaturari (eta egungo literatura, Jainkoari eskerrak, Hego Amerikakoa baino zerbaiz gehiago da) jarraitzen zaiona, hitz batez, literatura asko irakurtzen duena. Eta euskaraz ez dakitenez ulertzeko eran mintzatzen, irakurtzen ez dutenentzako mailan idazten, literatura bost axola zaienen txaloa jasotzeko moduko literatura egiten gure indarrak gehienak hondatzen ditugun herri xeblere honetan guztiz arraroa gertatzen bada ere, Saizarbitoriak munduko gauzarik logikoena besterik ez du egin: nobela bat nobelazaleentzat idatzi. Horien hitza da hauzi honetan entzun behar den bakarra.

\*\*\* **KARLOS OTEGI. Pertsonaia euskal nobelagintzan.** Euskara-tzailea: Dionisio Amundarain. 1975eko «Gipuzkoa» literatur saria. Gero euskal liburuak. Bilbo, 1976. 240 or. 11 x 18. 250 pezeta.

Gaitzat euskal nobelagintzako pertsonaia duen lizentziatur tesi hau bi zatitan moldatu da. Lehenak, «Analisirako elementuak», bi kapitulu ditu: «Nobelako pertsonaia», metodologikoa, eta «Euskal nobelagintza», azterkizunaren ikuspegi orokorra. Bigarren zatian, lau kapitulutan, euskal nobelagintzako lau pertsonai-mota aztertzen dira: «pertsonaia indibiduala iraukorki eraikia» (D. Agirre, *Garoa*), «pertsonaia indibiduala existenzial gatazkan» (J. L. Alvarez Enparantza, *Leturiaren egunkari ezkutua*), «pertsonaia kolektibua bere baitan urratua eta bere buruari oldartua» (A. Lertxundi, *Ajea du Urturik*), eta «pertsonaia babesgabea» (M. Ugalde, *Itsasoa ur-bazter luzea da*).

Gure literatur kritikaren alor soilean, guztiz onuragarria gertatzen da Karlos Otegiren saioa. Tresneria kritiko nahiko zorrotz bat bereganatu du eta aski zorrozki erabiltzen jakin du, batez ere *Garoa*-z eta *Leturia*-z ari dencan, niretzat lanaren parterik baliosuenak. *Urturi*-ri dagokionez, azterketa nahiko osagabea iruditzen zait: *Garoa*-n hain ongi adierazten den pertsonaia-kontalari erlazioaren arazoa ez da azpimarkatzen, eta hori da hain zuzen, beti nire ustez, Lertxundiren nobelaren punturik ahulena, zeren *Urturi*-n pertsonaia-mota berri bat eraikitzen bada ere, erabiltzen den kontalaria funtsean Agirrerena bera baita. Ikus adibidez hainbat kapitulu sarbidea egiteko modua: kontakizunaren argigarri edo giltz gertatzen den proposamen orokor batetan datza bi kasuetan. *Itsasoa ur-bazter luzea da* euskal nobelatzat hartzea ez zait bidezkoa iruditzen, definizioz euskal nobela bat ez delako, hain zuzen. Pertsonaia-mota berri bat aztertu nahiak ez du aukera zilegiztatzen, eta, bestalde, lana argitaratu orduko euskal ordain jatorrak publikatu direla hartu behar da kontutan. Puntu horretan, lana zaharkitua agertu da. Editoreen erruz dudarik gabe, baina zaharkitua. Bestalde, Otegiren azterketak ez ditu saihestu lizentziatur tesien akats

jakinak. Batez ere, erabili den bibliografiako autore eta kritik lanen aipuez ari gara: ugariegiak dira eta badirudi egilea ez dela gauza izan informazio guzti hori mamitzeko eta irakurleari landuagoturik emateko. Aipu-ugarikeria hori epai-mahai baten aurrean zilegizta daiteke beharbada, baina ez esku-libururen forma hartzen duen zerbaitetan, irakurlearentzat azterketaren erritmoaren hauskarri eta ihardukiaren astungarri besterik ez baita gertatzen. Baina gogoeta hauen ondorioz ez beza irakurleak pentsa Otegiren saioa hala-holakotzat hartzen dugunik. Alor gaitz eta eskergabe bat (horregatik gure artean ia lantzen ez dena) hautatzeko ausartzia izan du, eta, berriro diot, saioaren balantzea, oro har, aski positiboa iruditzen zait, batez ere aintzindari gisa ihardun behar izan duela kontutan hartzen bada. Otegiren lanaren orrialdeetan zehar badute euskal nobelagintzaz arduratzen direnek zer ikas eta euskal unibertsitariek non exenplu har.

**JULIO VERNE: Lurraren bihotzeraino.** Gero euskal liburuak. Bilbo, 1976. Euskaratzailea: Iñaki Azkune. Azala eta marrazkiak: Alvaro Sanchez. 162 or. 13,5 x 19,5. 180 pezeta. Kimu saila.

**ARRIETA, J. M.: Orreagako gudua.** Gordailu, Donostia, 1976. Argazkiak: M. P. Larrañaga. Marrazkiak: A. Ferreño eta A. Irastorza. Ikastola Liburutegiaren Historia Saileko 3. alea, J. F. Setienen ardurapean. Argitalpena, «Irakasle elkar-teak» eragina, 28 or. 15 x 23. 75 pezeta.

**DANIEL IBARGOITI: Gasteiz.** Gordailu, Donostia, 1976. Argazkiak: R. Arbosa eta F. Fz. Jauregi. Marrazkiak: J. Iruretagolena eta R. Santiago. Ikastola Liburutegiaren Geografia Saileko 4. alea, J. L. Lizundiaren ardurapean. Argitalpena, «Irakasle Elkar-teak» eragina. 28 or. 15 x 23. 75 pezeta.

**OTAEGI, B.: Haitzuloetako euskal gizona.** Gordailu, Donostia, 1976. Argazkiak: Jexux Altuna, Añamendi Arg., Laborde, B. Otaegi, P. Elorza. Ikastola Liburutegiaren Gizarte Saileko 6. alea, J. F. Setienen ardurapean. Argitalpena, «Irakasle elkar-teak» eragina. 28 or. 15 x 23. 75 pezeta.

**ALTUNA, J.: Ugaztunak.** Gordailu, Donostia, 1976. Argazkiak: Jexux Altuna. Ikastola Liburutegiaren Natur-Zientzia Saileko 7. alea, Antton Amondarainen ardurapean. Argitalpena, «Irakasle Elkar-teak» eragina. 28 or. 15 x 23. 75 pezeta.

**ARIZMENDI AMIEL, M. E.: Vascos y Trajes.** Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1976. Julio Caro Barojaren hitzaurrea. Argazki eta irudi ugari, kolorez nahiz zuri-beltzetan. 2 liburuki: 344 eta 372 or. 23 x 28. Telazko koadernapena. 4.500 pezeta. Bildumetatik kanpo.

## Euskararen Irakaskuntza Gipuzkoan

Mikel Zalbide

### SARRERA

Beste probintzietako egoeraz zehaztasun asko ez dudanez, Gipuzkoako giroaz agertu nahi nuke, soilik, zenbait gogoeta.

Gogo bizia nabari da, azkenaldi honetan, euskara ikasteko edo etxegiroan ikasitakoa lantzeko. Fenomenoa ez da, nolana ere, punttako lau burubero edo exotikorena: kalean ageri da orain euskal hizkuntzaganako atxekitasun edo interes irmoa, inoizko mespretxu giro hura oinharri-oinharritik ezabatzen ari dena.

Giro aldaketa hori, beste hainbat kontu bezala, orain 10-15 urte hasi zen gorpuzten. Hasierako ekintzak, normala denez, aski experimentalak izan ziren; bazen nahikoa lan, besterik gabe ere, euskarak bizirik irauteko lituzkeen arrazoi, eskubide eta posibletasunak aztertzen eta babesten. Oker handirik gabe esan daiteke, ordea, lehen pauso hau emanik dagoela. Orain, inor gutxi ausartzen da —hitzez behintzat— Euskal Herriak euskara alferrikakoa edo are bere kaltetarako duela esaten. Burgesiaren patrimoniotzat jotzen zutenak ere —ez al da axialitxura hutsa izango— eritziz aldatu edo egin dira.

Giro berri baten atarian gaude, beraz, asmoetatik ekintzetara pasatzen hasteko orduan. Euskara hitzez defendatzea aski zeneko garaiak joanak dira; orain, gaur-biharretan presta ditzagun alternatibek taxutuko dute hurrengo urteotako bidea. Jendeak, gazte jendeak batez ere, badu euskara ikasteko gogorik. Medioak